

Liburu ederra

Testamentu Zarreko ta Barriko liburu guztien eleiz-bildumari *Biblia* deritxogu. Liburu ederra au ederrik bada. 1940'n ni, beste apaiz eta praille mordo bategaz, Karmona'ko espetxean aurkitzen nintzala, an zan Espaina'n orduan sozialisten buru zan Julian Besteiro be, asko be asko irakurri oi ebana: arentzat etzan Biblia baino idazti eder-oberik. Ortixek at era ten eben bere neke-minentzat poza.

Gure arimeak, izan be, Biblian aurkitzen dau edozein egoeratan bearrezko dauan janari egokia. Bego emen onetaz Aita Olabide'ren itzulpenean dalako edertasunari buruz idatzita datorrena, guztioi egoki datorkiguna.

Idazteunaren gora aundia —difio—, Aren Asmatzailleagandikoa da. Idazleak eta biltzailleak asko dirala ere, guziak Zuzendari bakar baten ardurapean ari izanak dira. Seme on guziek, beren Aitak asmatu dun idazti deuna ezagutu, irakurri, goretsi, gogoan erabilli, ausnartu eta make izan dute. Beren buruak zintzotzat dauzkatena, idazteunetako esanetatik zintzoago izateko indarra atera eta berritzen dute. Yakintsu eta asko ikasiei, apalak izaten ikasteko, idazteuna bultzaturik eta onuemaillerik aundiena zaie; xaloen beeko mailletara yeisteko biguin-

tasuna ere ictazteunetako ezti bikanak damaie. Aien Aita eta Irazai-
lleak egin ditunak ikustean, biotz beroko eta maitati utsak, idazteunaz,
txunditu eta urtuak gelditzen dira. Gogoa irazeki egiten zaie. Sinis-
mena pizkortu. Itxaropena zutitu. Naimena zindotu. Mai tasuna mai-
llarik goienetako zelaietara igo. Giza-bizitzako gora-berarik ez da,
idazteunetan gure pozerako aipatua ez danik. Ez legortu ez diteken
malkorik. Ez arindu ezineko naigaberik» (*Itzaurrea*, 1).

Krlsto ardatz

Eleizeak irakasten dauskunez, Jainkoak guri iragarritako guztia
Liburu Santuetan ata aoz-aozko tradizinoan dago. Liburuoi, barriz,
barne daukien gurentasun ederra, Jainkoaren argi ta ardurapean oso-
turik dagozalako, datorkie. Giza-idazleak, euren lanean, Espiritu San-
tuaren eraginpean egozan oso-osorik, eta euron idatziak itzaren zentzu
berez-berezkoz euren lanak dira, eta bardin Jainkoarenak zentzun bar-
dinez. Eleizeak orrelaxe artu zituan liburu santuok. Euron mamina,
auxe da: Jainkoak munduari buruz eta bere erri aukefatuari buruz
izandako eragin aitakorra. Biblia ezta, beraz, egi usen laburpen
bat bakarrik, Jainko-egintzaren erakuspen zabala baino. Gizasemeen
edestia, Jainkoak lagunduta.

Jainkoaren eta gizasemeen arteko artu-emon orixe erakusten daus-
ku batez be Bibliak, eta berau izan ezpalitz gizona etzan ezelan be
gauzarik askoren jakitun. Testamentu Zarrak azaltzen dausku gizona-
ren egoera larria; zelan aurkitzen zan Salbatzaille baten premifia es-
tuan, eta Jainkoak zelan gertatu eban mundua onek onez artu egian
opa eban Salbatzaille ori.

Testamentu Barriak dirausku zelan etorri zan Salbatzaillea: gure
artean jaio, Nazaret'en bizi, maitasunezko irakatsia otsegin, gurutzean
il, illen aretik biztu... zelan bete eban beraren lana; Eleizea sortu,
bere Sakramentuz aberastu, ta bizia emonaz onein onerako burutu
eban guztia, zelan izan zan munduaren mesedegarri. Guzti onen lauki
bikaina daukagu guk Kris to ezagutu ta biotzez maite izan ebenak egia.
Orrezaz ostein, guk gitxi baino ez dogu ezagutzen Aren biziiaz. Liburu
Santuak ez ezagutzea, beraz, Kristo ez ezagutzea da. Eta Kris to da
Edesti osoaren ardatz; bitan zatitzen da Biblia: Testamentu Zarra
Kristo aurretiko zatia dogu, ta Testamentu Barria Kristo geroztikoa.
Bera buru ta ardatz.

Kristo da gizonaren osasuna. Eta Kristo agindua da Testamentu Zarrean eta irudi askoz aurretiaz aitzen emona. Ez gero itzez eta agintzaz bakarrik, baita, eta batez be, Israel'go kondairako jazokunetaz; BibKan datoz oneik adierazota. Israel Jainkoak bere erritzat aukeratzten dau, basamortuan zear darabil garbitu ta zintzotu dedin; ezta ta esnea darion lurraldea damotso, gaur zorionsu da bira ezbearrez betea, baiia Jainkoa bera ta Berak bialduko dautson Semea, Salbatzaillea izango yakoz, osasun iturri nunbait. Kristo da osasuna ta Onek ekarriko dautso munduari bearrezko dauan osabidea.

Testamentu Barria lenen-lenengo osasun onen istoria da, Kristoren zer eta egite guztietan erakutsia. Biblia bezuza bat da, erregalu bat Jainkoak gizonari egina. Berau, Beronen argipean, idatzi ebenak barriz gizaseme lau ta izakera askotakoak. Mateo, esate baterako, zerga batzaille bat; Markos, Pedro'ren idazkari; Pedro bera, lenengo beintzat arrantzale; Paul eta onen idazkari, Lukas; Jon, «trumoi-seme» baiia Jesus'ek maite ebana, Testamentu Barriko batzuk bakarrik aita-tzeko.

Biblia liburu mordo batez osotua da, idazle ezbardinak Jainkoaren ardurapean moldatuta. Katolikuen Biblia 72 liburuz osoturik dago, 45 Testamentu Zarrekoak eta 27 Barrikoak. Testamentu Zarrekoak oneik dira: 1) *Arauk*, 5 — Asiera, Urtenera, Apaizena, Zenbakiak eta Itzaldiak; 2) *Bizitzak*, —Josue, Ebazleak, Errut, Samuel lena ta bigarrena, Erregeen 1 ta 2, Egun Itzak lena ta bigarrena, Ezrra, Neemi, Tobias, Judit, Ester, Makabeotarrak lena ta bigarrena—; 3) *Olerkiak*, 1 —Job, Eresiak, Itzurak, Gogoetak, Abestirik ederrena, Jakintza ta Ikastuna—; 4) *Igarleak*, 18 — Isaias, Jeremias, Erostat, Baruk, Ezeki, Daniel, Ose, Joel, Amos, Abdias, Jonas, Mikeas, Naun, Abakuk, Sofonias, Ageo, Zakarias eta Malakias—. Eta Testamentu Barrikoak beste oneik: 1) *Barri Onak*, 4 —Mateo, Markos, Lukas eta Jon deunarenak—; 2) *Edestia*, 1 —Apostoluen Eginak—; 3) *Irazkiak*, 21 —Paul deunarenak, 13: Erromakoai, Korintoarrai 2, Galaziarrai, Efeso'koai, Pilipo'koai, Tesalonika'tarrai 2, Timoteo'ri 2, Tito'ri, Pilemon'eri eta Ebertarrai. Santiago'rena. Pedro deunarenak 2, Jon deunarenak 3, eta Judas deunarena; eta 3) *Igarlea*, 1 —Joan'ri agertua.

Eleiza Katolikuak erabillitako Biblia ofiziala latinez *Vulgata* lez ezagutua da. *Atrunta* adierazo nai dau itz onek, itzulpen au arrunta, ontzat artua ta geien erabillia dalako. Itzulpen au Jeronimo deunak 4'garren gizaldian egifia dogu. Berau zan, izan be, garai artan idazti deunetan ikasiena, eta Damaso Aita Santuak eskatu eutsonean Biblia latinera itzulzeko, arek agindu lana alik eta ondoen osotuteko ebreotar eta gerkar eskuz idatziak euken oberena esku artean izan eban.

Munduko izkuntzarik geien-geienetara biurturik daukagu Biblia; baita euskerara be, Duvoisin kapitainaren *Bible Saindua*, Aita Olabide'en *Itun Zar eta Berria* eta J. Kerexeta'ren (bizkaieraz) oso ederrak ditugu. Eleizeak darabilen Bibliako Testamentu Zarrak Septuaginta deritxona dau oinarri; gerkar itzulpen au 70 itzultzailek egitiiko lana da, gerkeraz mintzatzen ziran Alejandria'ko judutarrentzat egina. 28'garren urterantz lez Kristo aurretik asi ta apurka apurka osotu zan. Itzulpen au egi-egiazkotzat eukien judutar guztiak, eta Kristok eta Apostoluak auxe erabilli eben: Testamentu Barrian aurkitzen diran Zarreko 350'tik 300 itzulpen ontatik jasoak digutu.

Ortik, bada, Kristinaouk daukagun eta sarriago irakurri ta ausnartu bear genduken Biblia, seguru, egite ta ederrena dogu.

Aoz-aozko tradizinoa


Baina ez uste Biblian dagoanik Jainkoak, gizaldiak zear, gizonakaz euki izan dauan artu-emon osoa, ez Testamentu Zarrean ez Barrian. Egoki dator emen Juan Deunak bere Ebanjelioa amaitzean dinoskuna. «Ba-dira gainera —difio—, Jesus'ek egin ebazan beste gauza asko be. Orreik banan-banan azalduko ba'litzaz, mundu guztia be ez litzake naikoa izango, nire ustez, idatziko litzakezan liburuak artzeko» (Jon, 21, 25).

Eta Paul deunak idazten dautse Tesalonika'koai: «Sendo iraun egizue, ba, anaiok, eta bete egizuez berbaz naiz gure idazkiz artu zenduezan irakatsiak» (II Tesal. 2, 14). Timoteo'ri be bardin dirautso, berak aoz-ao artu ta irakatsiari buruz: «Adore zaitetz, ene seme, eta entzule askoren aurrean entzun zeustana, azaldu egiezu beste batzui irakasteko gai izan daitekezan gizon zintzoai» (II Tim. 2, 2).

Ikusten danez, emen ba-da zeozer idatzi bagea, aoz-ao datorrena eta guk bazterturik itxi ezin geinkena: tradizinoa esan oi dautsagu oni. Kristautar Eleizan onek be indar andia dauko. Espiritu Santuak zuzentzen dau Eleizea. Beronek, baita, goi-argitzen ditu Liburu Santuak. Beraz, batak ezin lei bestea ezeztatu. Liburu Santuak Eleizarako idatziak izan ziran, Eleizeak erabilli egizan; baifia, berberak dinoanez, ez da Kristok erakutsi eban guztia. Orduan zerbait falta yako, beste fede iturri bat bear dau; aoz datorrena, ots, Tradizinoa.

Nun daukagu tradizino au? Lenengo gizaldietako Eleiz-istorian; aurrengo Eleiz-batzarretako erabagietan, antxinako liturjian, martirien bizitz-kondairetan, Eleizako Gurasoen idatzietan, eta abar. Biblia ta tradiziofia ditugu fedearen iturri eder.

A. O.



39